


BERRIKUNTZAK ENPRESEN LEHIAKORTASUNEAN EGINDAKO ERAGINEI IKERKETA EKONOMIKOA

Posted on 28/07/2015 by Naider



Zientzia eta Teknologiarako Espainiako Fundazioak (FECYT) ikerketa ekonometriko aitzindaria sustatu zuen, berrikuntzan egindako inbertsioak Espainiako enpresetan duen benetako eragina aztertu eta neurtzeko. Asko hitz egiten da berrikuntzako esfortzuaren eta enpresen lehiakortasunaren arteko erlazioaz, baina Espainian ez zegoen oraindik nolabaiteko kausalitatea frogatzen zuen ikerketa zientifikorik.

Bereziki, berrikuntzak enpresen salmentetan, produktu berrien salmenten eta atzerriko merkatuetarako esportazioetan duen eragina ebaluatzea izan da helburu. Analisiaren hiru dimentsio hauek enpresen lehiakortasuna ezaugarritzea ahalbidetzen dute, bai barneko merkatuetan (salmenta-zifrak eta produktibitatea), bai atzerrian (esportazioak), baita berrikuntzaren kudeaketan izandako arrakasta ere (salmenta berritzaileak). Azterketaren emaitzei esker, enpresa-lehiakortasuna berrikuntzako inbertsioekin lotzen duten mekanismoak hobeto ulertu ahal izan dira.

Berrikuntzaren ondorioak egon zitezkeen besteetatik bereizteko hainbat teknika mikro-ekonometriko erabili ziren (Momentuen Metodo Orokorra; Arellano-Bond estimatzaileak, SYS-GMM, etab.). Eskuragarri dauden aldagaietara hobekien egokitzen diren teknika ekonometrikoak ere

erabili dira, izan dezaketen izaera kualitatiboa kontuan hartuta. Azkenik, Berrikuntza Teknologikoko Panelaren (PITEC) datuak erabili dira 2005, 2006, 2007 eta 2008ko azkenenetako informazioa erabiliz eta bere panelaren tamaina zehatz-mehatz baliatuz.

Naiderek, FECYTekin koordinatuta, proposamen metodologikoa, analisi kuantitatiboa eta azken balorazio-txostenen lanketa egin zituen, enpresek egindako I+G+b-aren eta haien ekonomia-ondorioen kausazko ondorioak aurkituz. emaitzak .

[*Berrikuntzaren eragina enpresen emaitzetan \(pdf\)*](#)

Antolatzailea NAIDER

There are no comments yet.